

# Sorgiñen Batzarrak

Euskalerriko sorgiñen batzarrak leku askotan egiten ziran, baiña Zugarramurdi'ko «Akelarre» batzar-lekuak dauka izenik zabalena.

Akelarre'n eundaka sorgin batzen ziran bariku gauetan euren jaiak ospatzeko.

Sorgin bakotxak bere etxean, sutondoan, lapi-kotxo bat eukan, misteriozko ukenduz beterik, eta norberen gorputza ukendu orregaz igurtzita, eta berba oneik esanda **gluztien azpitik**, sasi guztien gainetik» Akelarre'ra egaz joaten ziran.

\* \*

## AKER BALTZA

Sorgiñen batzarretan leenengo deabrua agertzen zan Aker Baltzaren itxuraz, bere adar oker eta okozpeko bizar luzeaz.

Akerraren oncioan Batzarreko Erregiña esartzen zan.

Au Sorgin guztietatik motzena eta atsorik zaarrena, zan.

\* \*

## MEZA BALTZA

Sorgin guztiak, egaz etorrita, biltzen ziranean, Akerra «Meza Baltza» emoten asten zan.

Bi anken gainean zutunik, trumoi antzeko abots lodiaz, sermoia egiten asten zan, Jaungoikoaren eta zeruko santu guztien aurka inondako zikinkeririk andienak esanaz.

Gero, bera mundu guztiko Jaun eta errege, zala agertzen, ete berak bere jarraitzalleai abera-

tasun andiak eta atsegin zoragarriak emoten eutsezala esan.

Meza erdian ikatz baltza, ostiaren orde, sagaritzen eban.

\* \*

## AKER BALTZA GURTU

Mezaren azkenean Akerra atzera hegira jartzen ean, eta batzarreko sorgin guztiak banan-banan Akerra gurtuten adoratzcn eben buztan azpiko «zerean» mosu bat emonaz. Akerrak mosu bakotxari atzekaldeko ezkerreko anka altzauta eran-zuten eutsan.

Meza Baltza amaitzean Akerrak sorgin bakotxari lan edo eginbear bat izentatzen eutsan: zuk urliari kalte au egin bear deutzazu, zuk besteari beste gaiztakeria au egin bear deutzazu. Zuk beste alakoa ito egin bear dozu...

\* \*

## SORGIN - BATZARRAREN AMAIA

Batzarraren azken-aldian, txistu eta clanboliñ-soiñuan, sorgin guztiak, emakumeak eta gizonez- (oak naasteen eta pilloka, clantzan asten ziran.

Gora eta beera, onera eta ara, zoroen antzera deadarka eta zarataka, gau osoa emoten eben eguna argitu arte, oillarrak kukurrukua jo arte.

Orduan neke-neke eginda, ostera ere etxera egaz etorten ziran, inok ezer igarri barik.

Urrengo goizean sorgin ori Mezatan deboziño-ik andienaz ikusten zan, ezer txarrik egin ez baleu legez.